

LT4: Gazteak gaitzea eta ahalduntzea

- Komunikazioaren izenburua: GAZTE EKOLIDERRAK, Jasangarritasunak liderrak behar dituelako.
- Egilearen izen-abizenak: Itsaso Olaizola eta Amaia Otazo
- Posterraren ahozko aurkezpena edo defentsa egingo duen pertsona: Itsaso Olaizola
- Helbidea, helbide elektronikoa eta telefonoa: Kutxa Ekogunea, Hernani-Rekalde errepidea z/g, (GI-2132, 2.km-a) 20009 Donostia, ekogunea@ekogunea.eus, 943552020
- Gako-hitzak (5). gazteak, jasangarritasuna, lidergoa, gaitu, ekin
- Lantokiaren, unibertsitatearen eta herrialdearen erreferentziak. Kutxa Ekogunea, Hernani-Rekalde errepidea z/g, (GI-2132, 2.km-a) 20009 Donostia

Azalpena: GAZTE EKOLIDERRAK, JASANGARRITASUNAK LIDERRAK BEHAR DITUELAKO.

ZER ETA ZERTARAKO?

Goi mailako formazio ekimen honen xedea Gipuzkoa eta Euskal Herriko gazteak jasangarritasunean eta lidergoan heztea, aktibatzea eta kolektiboki antolatzea da.

2010. urtean Kutxa Ekoguneak abiatutako ekimenak 5 urtetako ibilbidea egin du bere lehen fasean. Guztira, 18-30 urte bitarteko 68 diziplina desberdinetako 143 Ekoliderrek eta beste hainbeste tutore eta bidelagunek hartu dute parte.

Artekotasuna da proiektuaren gakoetako bat. Trebakuntza eskaintzan diziplina anitzetako unibertsitate desberdinetako irakasleak, erakundeetako ordezkariak, profesionalak, elkarteak eta bestelakoek parte hartu dute jasangarritasuna eta lidergoa ikuspuntu ezberdinetatik lantzeko.

NOLA?

Trebatu: 6 hilabete irauten duen goi mailako trebakuntza da, beste egitekoekin (ikasketak, lana, boluntarioritza) osatzen dena (90 ordu).

Ekin: ikasitakoa praktikara eramateko aldia da. Partaideek taldekako proiektu bat diseinatu, garatu eta ezagutzera eman behar dute, ikaskideen zein, bidelagun eta tutoreen laguntzaz. 22 proiektu landu dira.

Izan: Partaideek gizarte eragile bihurtzeko bideari ekiten diote, jasotakoa itzultzen diote gizarteari (30 artikulua, praktika onen gida eta dokumentala); jardunaldi eta mintegi irekiak; beste elkarteekin elkarlana; eta Ekoliderrek Sarea eta kontaktu sare zabala osatu dute.

EDUKIA:

Jasangarritasuna modu integralean ulertzea du helburu: ekonomia, gizarte eta ingurumena.

Lidergoa: Egungo sistema ekonomiko, politiko eta kulturalak lidergo eredu eraldatzaileak behar dute.

Profil zehatzen bila. Ekintzara pasatzeko gogoia grina duten gazteak bilatu ditugu. Profil ezberdin bakoitzak gehitzen dio aberastasuna taldeari.

2. FASEAREN ATARIAN

Lehen faseko 5 edizioen ondoren, Gazte Ekoliderrak ekimenaren 2. fasean sartzen goaz. Behar berrietara egokituaz eta egindako bidean ikasitakoak barneratuz, fase berriaren eraikitzean ari gara lanean. Parte hartu nahi?

[http://www.ekogunea.eus/files/galeria/flash/Ekoliderrak5urte_Interaktiboa%20\(1\).swf](http://www.ekogunea.eus/files/galeria/flash/Ekoliderrak5urte_Interaktiboa%20(1).swf)

